



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2020/09/29an EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 29/09/2020.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Maria Purificación Regidor Varela
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Eluska Irazu Henández
Nestor Arana Arexolaleiba
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Iñaki Kerejeta Gorostiza

Idazkaria

Eduarne Iturbe Laskurain

Eskoriatzan, 2020ko irailaren 29an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ez Ohiko Udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Ana Belen de Castro Ramos eta Ander Errarte del Pozo.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 29 de septiembre de 2020, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Ana Belén de Castro Ramos y Ander Errarte del Pozo.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAABDXZV.6A5A>

2020/09/29

Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

1.- Covid-19ak sortutako krisi ekonomiko eta sozialaren eraginpean dauden hogeit langile baino gutxiagoko Eskoriatzako enpresentzat enpleguari eusteko udal laguntzen programaren oinarri arautzaileak onartzea.

Bertaratutako zinegotzi guztiek dute Ekonomia Garapen Jasangarrirako batzorde informatzailearen diktamenaren eta laguntzetarako deialdia arautuko duten oinarrien proposamenaren kopia bat.

Hitza eman ondoren, honako parte hartze hauek izan dira:

Antonio Regañok azaldu du laguntzak Covid-19ak eragindako krisia jasan dituzten 20 langile baino gutxiagoko enpresentzat direla, betiere, alarma egoeraren deklarazio egin zen edo ERTEa eskatu zen egunean plantillako langile ziren pertsonak berriz ere kontratatzen baldin badira edo murriztutako lanaldia berreskuratu edo gutxienez % 50era arte handitzen baldin bada. Halaber, esan du horretarako izendatutako kreditua 40.000 eurokoa dela, eta langile bakoitzarengatik 900 euro arteko laguntza jaso ahal izango dela, eta laguntza hori bateragarria izango dela helburu horretarako jaso daitekeen beste edozeinekin.

Eluska Irazuk adierazi du hori, beste edozein laguntza bezala, ondo dagoela, baina oraindik badagoela zer landu, beharrezkoa dela laguntzak ematen jarraitzea, eskoriatzarrek beharrak dituztelako, eta behar horiek non dauden antzeman behar direla, eta horiek antzematea eta beharrezko lekuan behar bezala jardutea Udalaren lana dela; eta, horretarako, eta berriz esaten duela dio, bere taldeko zinegotziak prest daudela lanerako eta behar den guztian laguntzeko.

Alkateak gogorarazi du laguntza horiekin COVID-19aren ONDORENGO BERRERAIKITZE PROGRAMA onartzerakoan guztiok hartutako konpromisoetako bat bete nahi dela.

Hitz egiteko txandak amaituta, bozketa egin da.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Covid-19ak sortutako krisi ekonomiko eta sozialaren eraginpean dauden hogeit langile baino gutxiagoko Eskoriatzako enpresentzat enpleguari eusteko udal laguntzen programaren oinarri arautzaileak onartzea.

Bigarrena.- Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

Laugarrena.- Ahalmena ematea Alkate jaunari oinarriak onartu ondoren bertan araututako dirulaguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAABDXZV.6A5A>

2020/09/29

Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2.- COVID 19 pandemia dela eta, Eskoriatzako establezimenduak higiene edota babes behar berrietara egokitzeko udal laguntzen programaren oinarri arautzaileak onartzea.

Bertaratutako zinegotzi guztiek dute Ekonomia Garapen Jasangarrirako batzorde informatzailearen diktamenaren eta laguntzetarako deialdia arautuko duten oinarrien proposamenaren kopia bat.

Hitza emanda, Antonio Regañok, oro har, azaldu du zertan den laguntzen programa, eta argitu du Foru Aldundiak finantzatzen duenez, laguntza horiek jasotzeko baldintzak eta norentzat izango diren Foru Aldundiak ezartzen dituela.

Ez da parte hartze gehiagorik izan eta bozketa egin da.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- COVID 19 pandemia dela eta, Eskoriatzako establezimenduak higiene edota babes behar berrietara egokitzeko udal laguntzen programaren oinarri arautzaileak onartzea.

Bigarrena.- OINARRI horiek jendaurrean jartzea 30 egun balioudenez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontaktzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

Laugarrena.- Ahalmena ematea Alkate jaunari oinarriak onartu ondoren bertan araututako dirulaguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:15ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

1.- Aprobación de las Bases reguladoras del programa de ayudas municipales al mantenimiento del empleo para empresas de menos de veinte trabajadores del municipio de Eskoriatza afectadas por la crisis económica y social generada por el Covid-19

Todos los corporativos presentes disponen de una copia del dictamen de la Comisión Informativa de Desarrollo Económico y de la propuesta de Bases que regiría la convocatoria de las ayudas.

Concedida la palabra, se producen las siguientes intervenciones:

Antonio Regaño explica que las ayudas van dirigidas a aquellas empresas de menos de 20 trabajadores que hayan sido afectadas por la crisis provocada por el Covid-19 y que vuelvan a contratar a personas que formaban parte de la plantilla el día antes de la declaración del estado de alarma o solicitud de ERTE o que recuperen o aumenten como mínimo hasta el 50% la jornada laboral reducida como consecuencia de la afección por la crisis derivada del impacto del Covid-19; que el crédito destinado al efecto es de 40.000 euros y que se podrá acceder a una ayuda de hasta 900 euros por trabajador y ésta será compatible con la cualquier otra ayuda que reciba para el mismo objeto.

Eluska Irazu manifiesta que ésta como cualquier otra ayuda está bien pero que todavía hay mucho donde trabajar, que es necesario seguir ayudando porque siguen habiendo necesidades entre los vecinos de Eskoriatza, que hay que detectar donde están esas necesidades y que es labor del Ayuntamiento el detectarlas y actuar dónde y como proceda; para lo que, y dice que lo repite nuevamente, los concejales de su grupo se ofrecen para trabajar y colaborar en todo lo que haga falta.

El Alcalde recuerda que con estas ayudas se pretende dar cumplimiento a uno de los compromisos adquiridos por todos al aprobar el PROGRAMA DE RECONSTRUCCION COVID-19.

Terminadas las intervenciones, se procede a la votación.

De conformidad con la propuesta elevada, y el voto favorable de todos los corporativos asistentes, el Pleno ACUERDA:

Primero: Aprobar las Bases reguladoras del programa de ayudas municipales al mantenimiento del empleo para empresas de menos de veinte trabajadores del municipio de Eskoriatza afectadas por la crisis económica y social generada por el Covid-19

Segundo: Someter dichas BASES a información pública por un periodo de 30 días hábiles, contados a partir de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, para que pueda ser examinadas y presentar las reclamaciones y sugerencias que se estimen pertinentes.

Tercero: De no producirse sugerencias o reclamaciones dichas BASES se entenderán definitivamente aprobadas sin necesidad de nuevo acuerdo.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAABDXZV.6A5A>

2020/09/29

Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Cuarto: Facultar al Sr. Alcalde para que, aprobadas dichas BASES convoque las ayudas por las mismas reguladas y autorice el gasto correspondiente.

2.-Aprobación de las Bases reguladoras del programa de ayudas municipales para la adaptación de los establecimientos de Eskoriatza a las nuevas necesidades higiénicas y/o de protección con motivo de la pandemia COVID 19.

Todos los corporativos presentes disponen de una copia del dictamen de la Comisión Informativa de Desarrollo Económico y de la propuesta de Bases que regiría la convocatoria de las ayudas.

Concedida la palabra, Antonio Regaño explica en líneas generales en qué consiste el programa de ayudas y aclara que, proviniendo la financiación de la Diputación Foral, el destino y las condiciones contempladas para poder acceder a las mismas vienen establecidos por el propio ente foral.

No hay más intervenciones y se procede a votar.

De conformidad con la propuesta elevada, y el voto favorable de todos los corporativos asistentes, el Pleno ACUERDA:

Primero: Aprobar las Bases reguladoras del programa de ayudas municipales para la adaptación de los establecimientos de Eskoriatza a las nuevas necesidades higiénicas y/o de protección con motivo de la pandemia COVID 19.

Segundo: Someter dichas BASES a información pública por un periodo de 30 días hábiles, contados a partir de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, para que pueda ser examinadas y presentar las reclamaciones y sugerencias que se estimen pertinentes.

Tercero: De no producirse sugerencias o reclamaciones dichas BASES se entenderán definitivamente aprobadas sin necesidad de nuevo acuerdo.

Cuarto: Facultar al Sr. Alcalde para que, aprobadas dichas BASES convoque las ayudas por las mismas reguladas y autorice el gasto correspondiente.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:15 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.